


The Noqua logo, featuring the word "noqua" in a bold, black, rounded font. The letter 'o' is replaced by a yellow speech bubble with a small tail pointing towards the bottom right.


San Praixku jaietako gehigarri berezia

Potxoenea eta Sutegi, antzezleen topaleku


**Baxurde Krossa,
iruditan**




Atenas, and their *Epidaurion* (archaeological remains of a 14th-century "Temple of Asclepius") and the "Lionel" and "Lorenza" (Museum). John Burgess, President, Linné "Club" in June (Dinner at the Hotel); Norman, and Mr. Saville and A. Polak, Buenos Aires; the Italian Club, Royal Hotel "Club", Hotel Carpi, "Buenos Aires" and the "Club de la Paz" and "Club de la Paz".



1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020, 2021, 2022, 2023, 2024, 2025, 2026, 2027, 2028, 2029, 2030, 2031, 2032, 2033, 2034, 2035, 2036, 2037, 2038, 2039, 2040, 2041, 2042, 2043, 2044, 2045, 2046, 2047, 2048, 2049, 2050, 2051, 2052, 2053, 2054, 2055, 2056, 2057, 2058, 2059, 2060, 2061, 2062, 2063, 2064, 2065, 2066, 2067, 2068, 2069, 2070, 2071, 2072, 2073, 2074, 2075, 2076, 2077, 2078, 2079, 2080, 2081, 2082, 2083, 2084, 2085, 2086, 2087, 2088, 2089, 2090, 2091, 2092, 2093, 2094, 2095, 2096, 2097, 2098, 2099, 2100, 2101, 2102, 2103, 2104, 2105, 2106, 2107, 2108, 2109, 2110, 2111, 2112, 2113, 2114, 2115, 2116, 2117, 2118, 2119, 2120, 2121, 2122, 2123, 2124, 2125, 2126, 2127, 2128, 2129, 2130, 2131, 2132, 2133, 2134, 2135, 2136, 2137, 2138, 2139, 2140, 2141, 2142, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2150, 2151, 2152, 2153, 2154, 2155, 2156, 2157, 2158, 2159, 2160, 2161, 2162, 2163, 2164, 2165, 2166, 2167, 2168, 2169, 2170, 2171, 2172, 2173, 2174, 2175, 2176, 2177, 2178, 2179, 2180, 2181, 2182, 2183, 2184, 2185, 2186, 2187, 2188, 2189, 2190, 2191, 2192, 2193, 2194, 2195, 2196, 2197, 2198, 2199, 2200, 2201, 2202, 2203, 2204, 2205, 2206, 2207, 2208, 2209, 2210, 2211, 2212, 2213, 2214, 2215, 2216, 2217, 2218, 2219, 2220, 2221, 2222, 2223, 2224, 2225, 2226, 2227, 2228, 2229, 2230, 2231, 2232, 2233, 2234, 2235, 2236, 2237, 2238, 2239, 2240, 2241, 2242, 2243, 2244, 2245, 2246, 2247, 2248, 2249, 2250, 2251, 2252, 2253, 2254, 2255, 2256, 2257, 2258, 2259, 2260, 2261, 2262, 2263, 2264, 2265, 2266, 2267, 2268, 2269, 2270, 2271, 2272, 2273, 2274, 2275, 2276, 2277, 2278, 2279, 2280, 2281, 2282, 2283, 2284, 2285, 2286, 2287, 2288, 2289, 2290, 2291, 2292, 2293, 2294, 2295, 2296, 2297, 2298, 2299, 2300, 2301, 2302, 2303, 2304, 2305, 2306, 2307, 2308, 2309, 2310, 2311, 2312, 2313, 2314, 2315, 2316, 2317, 2318, 2319, 2320, 2321, 2322, 2323, 2324, 2325, 2326, 2327, 2328, 2329, 2330, 2331, 2332, 2333, 2334, 2335, 2336, 2337, 2338, 2339, 2340, 2341, 2342, 2343, 2344, 2345, 2346, 2347, 2348, 2349, 2350, 2351, 2352, 2353, 2354, 2355, 2356, 2357, 2358, 2359, 2360, 2361, 2362, 2363, 2364, 2365, 2366, 2367, 2368, 2369, 2370, 2371, 2372, 2373, 2374, 2375, 2376, 2377, 2378, 2379, 2380, 2381, 2382, 2383, 2384, 2385, 2386, 2387, 2388, 2389, 2390, 2391, 2392, 2393, 2394, 2395, 2396, 2397, 2398, 2399, 2400, 2401, 2402, 2403, 2404, 2405, 2406, 2407, 2408, 2409, 2410, 2411, 2412, 2413, 2414, 2415, 2416, 2417, 2418, 2419, 2420, 2421, 2422, 2423, 2424, 2425, 2426, 2427, 2428, 2429, 2430, 2431, 2432, 2433, 2434, 2435, 2436, 2437, 2438, 2439, 2440, 2441, 2442, 2443, 2444, 2445, 2446, 2447, 2448, 2449, 2450, 2451, 2452, 2453, 2454, 2455, 2456, 2457, 2458, 2459, 2460, 2461, 2462, 2463, 2464, 2465, 2466, 2467, 2468, 2469, 2470, 2471, 2472, 2473, 2474, 2475, 2476, 2477, 2478, 2479, 2480, 2481, 2482, 2483, 2484, 2485, 2486, 2487, 2488, 2489, 2490, 2491, 2492, 2493, 2494, 2495, 2496, 2497, 2498, 2499, 2500, 2501, 2502, 2503, 2504, 2505, 2506, 2507, 2508, 2509, 2510, 2511, 2512, 2513, 2514, 2515, 2516, 2517, 2518, 2519, 2520, 2521, 2522, 2523, 2524, 2525, 2526, 2527, 2528, 2529, 2530, 2531, 2532, 2533, 2534, 2535, 2536, 2537, 2538, 2539, 2540, 2541, 2542, 2543, 2544, 2545, 2546, 2547, 2548, 2549, 2550, 2551, 2552, 2553, 2554, 2555, 2556, 2557, 2558, 2559, 2560, 2561, 2562, 2563, 2564, 2565, 2566, 2567, 2568, 2569, 2570, 2571, 2572, 2573, 2574, 2575, 2576, 2577, 2578, 2579, 2580, 2581, 2582, 2583, 2584, 2585, 2586, 2587, 2588, 2589, 2590, 2591, 2592, 2593, 2594, 2595, 2596, 2597, 2598, 2599, 2600, 2601, 2602, 2603, 2604, 2605, 2606, 2607, 2608, 2609, 2610, 2611, 2612, 2613, 2614, 2615, 2616, 2617, 2618, 2619, 2620, 2621, 2622, 2623, 2624, 2625, 2626, 2627, 2628, 2629, 2630, 2631, 2632, 2633, 2634, 2635, 2636, 2637, 2638, 2639, 2640, 2641, 2642, 2643, 2644, 2645, 2646, 2647, 2648, 2649, 2650, 2651, 2652, 2653, 2654, 2655, 2656, 2657, 2658, 2659, 2660, 2661, 2662, 2663, 2664, 2665, 2666, 2667, 2668, 2669, 2670, 2671, 2672, 2673, 26



John Francis Santiago "Kiki" and Rafael Tito Rodríguez, Papi Rodríguez Avenue Plaza, Maricao National Park, San Juan, Puerto Rico

[illegible]

Usurbil KE


50 urteko ibilbidea, liburu batean jasoa

Herri osoak ikus zaitzala nahi duzu?

IPINI ZURE IRAGARKIA HEMEN

Kontsulta itzazu tarifak
www.noaua.com helbidean edota
deitu 943 36 03 21 zenbakira


noaua



KALE NAGUSIA, 10
USURBIL

astele-larunb
10-13 , 17-20
astelehen goizak itxita

Ondo pasa San Praixkuak!



*E/S Aginaga
Guregas- Grupo-Gureak
N-634 P.K. 7,6 Aginaga*

GUREGAS
GRUPO GUREAK

Aginaga eskolako
ikasle eta
irakasleek jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



Albisteak iruditan

Ilusioan, parekorik ez

Prestaketa lan handiak egiten dituzte Baxurde Krossean ateratzen diren korrikalari askok. Batzuk, urte osoa ematen dute entrenatzeko. Han eta hemen ibiltzen dira ondoren, euren markak ondu nahian. Irudian agertzen direnak ere Baxurde Krossean atera ziren. Batzuk urduriatzean, irteera noiz emango zain. Ibilbide laburragoa osatu zuten, baina ahalegin betean aritu ziren denak. Jaso zuten erantzuna ere halakoxea izan zen. Beroa. Eta helmugan, gainera, denak izan ziren garaile.

Aldameneko QR kodearekin, irteerako bideo irudiak ikus ahal izango dituzue eskuko telefonoaren bitartez.



Irteera noiz emango, Baxurde Krossean. Web orrian ikusgai dago bideoa, noaua.com helbidean.

Laburrean

Hirigintza arauak argitara eman dituzte

Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamenduko Arauen Berrikuspenaren Testu Bateraginean jasotako hirigintza arauak argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013ko irailaren 10ean, Usurbilgo Udalaren web orritik berri eman dutenez, "aurrez Usurbilgo Udala Batzarra 2013ko maiatzaren 28an onartutakoaren eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamenduko arduradunak 2013ko uztailaren 22an emandako Foru Aginduen harira". Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko lotura jarri dute, "usurbildarrek eta interesatuek, haien berri izan dezaten".

Segurtasun neurri eske Usurbilgo PSE-EE

Urbil-eko errepide eta geltokietan, baita Txikierrdin ere, segurtasun neurri gabezia dela eta, kezka agertu du Usurbilgo PSE-EEK. Istripuak gertatu direla eta aipatu gabezia horiei loturik, Urbil aldera doazen hainbat herritarren kexak jaso dituztela adierazi du prentsa ohar bidez, udal talde sozialistak. Kexok duela urtebete helarazi zituen Foru Aldundira, udal bozeramaile Ricardo Crespok adierazi duenez, baina diotenez, oraindik ez da erantzunik egon. Argiteria eskatzen dute Txikierrdi eta Urbil inguruetan.

Legegintzaldiko lan ildoak aurkeztu ditu EH Bilduk

Pertsonak lehenetsi, ama lurra zaindu, gure kultura sustatu eta askatasuna eta parte hartzean oinarrituriko erabakiak hartzen jarraitu asmo dutela azaldu zuten irailaren 16an Potxoenean, Usurbilgo EH Bilduko ordezkariak 2011-2015 legegintzaldiko lehen bi urteak baloratzeko deitu zuten batzarrean. 2011tik hona eginikoaren balantzea aurkeztu zuten, baita datozen urteotarako lan ildo nagusiak ere.

Zehaztasun guztien berri, web orrialde honetan: usurbil.ehbildu.net/2013/09/17/usurbilen-ere-eraldaketa-martxan/ helbidean.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubidea.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.com:
Imanol Ubidea, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Amets baten indarra

Amets egin dut: egun batez nazio hau altxa eta bere sinemenaren zentzuaz jabetuko dela: gizaki orok eskubide berak dituela."

"Amets egin dut: egun batez Georgiako muino gorrien gainean esklabo ohien eta esklabo-jabeen seme-alabak senidetaren mahai berean eseriko direla".

Hitz hauekin hasi zuen Martin Luther Kingek bere diskurtso ospetsua duela 50 urte, 1963ko abuztuaren 28an Washington-erantz egin zen martxan; 250.000 pertsona ba omen ziren ibilaldi hartan; Marlon Brando, Joan Baez, Bob Dylan eta beste jende ospetsu askok parte hartu zuen manifestazioan. Ibilaldia Abraham Lincoln Amerikako Estatu Batuetako presidente ohiaren monumentuaren aurrean amaitu zen eta bederatzi hizlari igo ziren taulara. Luther Kingen solasak itzala egin zien. Bertan izan zen kronista batek honela dio: "bere hitzaldiaren testua utzi alde batera eta inprobisatzen hasi zen modu harri garrian ametsaren gaiaz; geroztik, munduan ezagutzen den erreplikarik ederrenetakoa bihurtu da".

50 urte pasata, eskoletako haurrek buruz ikasten dituzte esaldi batzuk; "amets egin dut" hitz horiek bihurtu dira L. Kingek libertatearekin, justiziarekin eta borroka baketsuarekin hartu zuen konpromisoaren sinbolo nagusi. Hitz horietan inspiratu dira geroztik giza ekintzaile asko.

Zer dela eta izan du hainbesteko eragina prediku horrek horrenbeste jenderengan? Alde batetik hizlari aparta zelako eta bestetik entzuleriarekin oso erraz konektatzen zuelako. Maisutasun hori bizitza guztian landu zuen; bere argumentuak transmititzeko hizkuntza aberats, zehatz eta erreferentzia bibliko eta historikoz betea erabiltzen zuen. Askotan aipatzen zituen Isaiasen zenbait testu ("egun hartan, ezpatak golde bihurtuko dituzte eta lantzak igitai. Ez da naziorik nazioren aurka altxatuko, ez dira gehiago gudurako trebatuko") eta Amosen hitz hauek: "Gorrito eta higuindituztuen kultu-batzarrak; datorrela zuzenbidea ura bezala, datorrela justizia beti darion erreka bezala". Apaiz protestante baten semea zen

eta teologian doktorea. Ez da harritzekoa, beraz, aipamen biblikoak maiz egitea.

L. King Atlantan jaio zen 1929an eta Memfis-en hil zuten 1968ko apirilaren 4an. Artzain protestantea zen eta gaztetandik borrokatu zuen pobrezia-aren aurka arraza-segregazioaren kontra eta oro har, giza eskubide guztien alde eta beti bide baketsuak erabiliz. Horregatik, hain zuzen, Bakearen Nobel saria eman zioten 1968an.

Errealitate bihurtu al da Kingen ametsa? Dudarik gabe, ordutik hona **asko aldatu da beltzen egoera AEBetan**. Egun, inor gutxi aitortuko du jendearen aurrean arrazakeriaren edo bereizketaren alde dagoela. Agintariek Kingen hitzak errepikatzen dituzte eta eredu bezala aurkeztu ere. Obamak berak Kingen hitzaldiaren 50. urteurreneko ospakizunean honela zioen: "Kingek milioika pertsonaren esperantza bizitu zuen; berari esker onartu ziren eskubide zibilak eta legediak aldatu". Bestalde, nork pentsatu behar zuen handik 45 bat urtera presidentek beltza izango zutela amerikarrek?

Askorentzat, Etxe Zurian presidentek beltz bat egote hutsak Kingen ametsa errealitate bihurtu dela esan nahi du.

Baina, **orduko aldarrikapen asko oraindik bete gabe daudela** pentsatzen dute giza eskubideen aldeko eragile anitzek; bidegabekeria franko dago oraindik konpontzeko. Adibidez: AEBetako beltzen % 28 pobreak dira, % 14ek ez dute lanik -zuri- langabezia tasa- ren bikoitza- eta % 16tik gora espetxean izan dira noizbait.

Leonard Zeskin adituaren ustez "urratsak urrats, atzeraka goazela dirudi zenbait alorretan. Martin Luther Kingen ametsa ez da bete".

King bera ondo jabetzen zen amets hori gauzatzeak izango zituen zailtasunez. Honela zioen: "ez da erraza izango gure nazioko desadostasun zaratsuak anaitasunezko sinfonia bihurtzen". Profeta gisa iragarri zuen, 1963a ez zela "amaiera bat, hasiera baizik". Hona hemen maiz errepikatzen zuen esaldi bat: "sinesten dut egia desarmatuak eta neurrigabeko maitasunak izango dutela azken hitza".

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

Benito Mujikari jarriak

U surbil Kirol Elkartek 50. urteurrena ospatzen ari du egun hauetan. Igan-dean, herri bazkaria egin zuten frontoian eta jendetza batu zen. Giro onean ospatu zuten urtemuga. Kerman Errekondoren bertso hauek abestu zituzten.

Berrogeitamar urte hauetan zenbat ziran ibiliko eskubaloian alde lanean hezituz hainbat mutiko goraiatzeko asko den arren denok bat dugu begiko gure sagarran txortena eta bihotza zera Benito gure artean ez zaude baina gurean zaude betiko.

Sagar bihotza bihurtu zera horra zure lan txukuna gure sendian entzuten bai da ozen zure oihartzuna zuk beti gogoz irakatsia guregan dago laguna ta orain berriz irakastea guri tokatzen zaiguna beraz badezu guregan zerbait denok zurea deguna

Sagar txortenen eginkizuna betetzen dezu gainera eskubaloira lotzen gaituen gure txortena bai zera alaitu zaitez berri bat badut guztiontzako da bera berrogeitamar urte bete ta ez da aldatu jarrera gaur beste hainbat bete nahiean berriz abiatu gera.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 4. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 30.

Dantza Taldekoek bilera deitu dute ostiral honetarako



Agerialdeko gimnasioan elkartuko dira ostiralean eta ikasturteko ordutegia zehaztuko dute bertan.

Hitzordua, arratsaldeko 17:00etarako finkatu dute Agerialdeko gimnasioan. Bertan, ikasturteko ordutegia zehaztuko da. Irailaren 25era arteko epea zegoen bestalde, Dantza Taldean izena emateko, helbide honetan: dantzataldea@usurbil.com (emailean ikaslearen izen abizenak eta maila adierazi).

Usurbilgo Dantza Taldeak, bestalde, helduei zuzendua dagoen eskaintzaren berri eman du:

■ Dantza Garaikide Taldea: iaz bezala euskal dantzetan oinarrituta beste estilo batzuk jorratu-

ko dituen taldea. Astelehenetan 19:30-21:00 Agerialdeko gimnasioan.

■ Plaza Dantzen Taldea: arin-arin, fandango, muxikoak eta antzekoak jorratuko dituen taldea. Asteazkenetan 20:00-21:30 Agerialdeko gimnasioan. Urriaren 2an izango da lehen ensaioa.

Edozein zalantza argitzeko edo informazio gehiago jasotzeko, hauxe duzue Usurbilgo Dantza Taldearekin harremanetan jartzeko modua: dantzataldea@usurbil.com

Soberan diren jolasak partekatzeko deia

Ikasturtea martxan jarri berri duten honetan, zenbait ohar plazaratu ditu Udarregi Ikastolak. Haur Hezkuntzatik egin duten eskaera bat lehenik. "Etxean soberan badituzue motorrak, patineteak, txirrinda txikiak, kamioi handiak... eskertuko genizueke Agerialdera ekartzera irailaren 27ra bitarte. Aldez aurretik, eskerrik asko!". Asteazkenara arte, irailaren 25era arte bestalde, Agerialdeko beheko solairuan dagoen

kaxa batean egon da, aurreko 2012-2013 ikasturtean ikasleek bertan ahaztuta utzitako arropa. Aipatu epea igarota, kaxako arropa dagokion berrerabilpen ontzira eramango dute.

Udarregitik plazaratu duten beste oharra: "Irailako kuotarekin batera, kontu korrante bidez, 2013-2014 ikasturteko ikasleen istripu-poliza kobratuko zaizuela jakinarazi nahi dizuegu. 12,50 euro izango da".

Asteartetik aurrera, ikasleak Euskaltegiara

Urriko lehen egunarekin batera abiatuko du Etumeta AEK euskaltegiak, 2013-2014 ikasturte berria. Ikastaro eskaintza zabala iragarri dute, denboraldi berrirako: alfabetatze saioak, EGA eta perfilak prestatzeko ikastaroak, autoikas-kuntza, mintzalagun egitasmoa... Matrikulazio epeak zabalik jarraitzen du: astelehenetik ostiralerara, 11:00etatik 13:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara.

Informazio gehiago: 607 609 379 edo emailaz: usurbil@aek.org

DYAk egoitza berriaren inaugurazioa, ostiralean

Muna-Lurra 26 zenbakian, Olarrondoko etxebizitza berrien ondoan kokatuko da Usurbilgo DYaren egoitza berria. Ostiral honetan, irailaren 27an inauguratuko dute, 18:00etan hasiko den ekitaldian. Bertaratuko direnei harrera egingo zaie, instalazioak ezagutzeko aukera egongo da, luntx bat dastatzearekin batera.

Santuenea Elkarteko ikastaroak abiatzear dira

Urriaren 1ean hasiko dira. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan 637 413 691 (Juanjo). Ikastaroak hauek izango dira:

-Yoga: astearte eta ostegunetan. 16:00-17:30 artean eta 20:30-22:00 artean.

-Yoga eta zoriontasuna lantzen: asteartetan, 18:30-20:00 artean.

-Meditazioa, mindfulness eta mantrak: ostegunetan, 19:00-20:00 artean.

Gripearen aurkako txertaketak

Astelehenetik martxan da txertaketa kanpaina. 65 urtetik gorako herritarrei baita osasun alorrean lanean dihardutenei zuzendua dago deialdia. Anbulatoria joanda gripearen aurkako txertoa jaso daiteke, pasa den irailaren 23az geroztik.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

izAgirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

JON ELORZA

IGELTSERITZA
OROKORRA

Obrak eta erreformak

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Aitzindariak izan ziren

50 URTE ONDOREN, UMORE HANDIZ OROITZEN DITUZTE GAZTETAKO IBILERAK

Irribarre batekin oroitzen dute Pepita Aierbek, Merte Illarramendik, eta Maitere Makazagak Usurbil Kirol Elkartearen egin zuten ibilbidea. Urtebeteko esperientzia laburra baina ederra izan zen. Eurek dioten moduan, “atzo izan zela dirudi”. Eta ordutik 50 urte pasa dira. Mahai baten bueltan eserita, umore handiz oroitu dituzte NOAUA!ko irakurleentzat, orduko bizipenak. Ze ondo pasatzen zuten.

Hirukote hau, herriko beste emakume batzuekin batera, aitzindaria dugu. Eurek osatu zuten, 1963an Gaztedi izenez ezagutera eman zen eskubaloien elkartearen emakumezkoen Usurbilgo lehen eskubaloien taldea. Jokalari kopuru justuarekin hasi ziren lehiatzen, 1963-64 denboraldian Gipuzkoan zeuden beste emakume talde bakan batzuekin. “Baten bat falta bazen, jokatu ezinik geratuko ginen”, dio Mertxe Illarramendik.

Berria zen eskubaloia orduko Usurbilen. Kirol jarduera ezezaguna zen haren lehen neurketak frontoian jokatu ziren Santixabeletan. “Joxe Irsuegi alkateak bultzatuta, eskubaloia eta saskibaloia partidak antolatu ziren herrian”, oroitzen du Illarramendik. Jendetza bildu zuten neurketok. Zirrara handia sortu behar izan zuten eskubaloia partida



NOAUA!n bisitan izan ditugu eskubaloian jokatu zuten lehen emakumeetako batzuk.

ESKUBALOIAN
1963-64 denboraldian,
Gipuzkoan zeuden beste
emakume talde bakan
batzuekin aritu ziren
jokatzen lehen aldiz

hauek, handik gutxira herriko gazte mordoak eman baitzuen izena. Eta haiek osatuko zuten eskubaloiko lehen belau-naldi gisa ezagutzen duguna.

Mutilekin batera, neska talde bat ere animatu zen lehen denboraldi hartan, eskubaloian jokatzera. “Txaramuntion kokatua zegoen Garbi-Alai elkartearen neska talde bat ginen. Nesken eskubaloia talde bat osatzea proposatu ziguten.

Gu beti, mutilen taldea lehen lerrotik animatzen aritzen baikin”, dio Illarramendik.

Proposamena jaso eta erronkari eutsiz, berehala hasi ziren prestaketa lanak. Batetik, kostata, baina garai hartan 15-17 urteren bueltan zituen emakume talde bat biltzea lortu zuten. Eta gero, arroparen kontua zegoen. Galtza motzak edo gona? Eztabaida piztu zen, eta konpontzeko modurik bilatu zuten; bietatik zerbait jantzita, irten ziren frontoira entrenatu eta lehiatzera.

LASTERKA ABILAK

Ordutik, asteazkenak heltzeko gogoz zain izaten ziren emakumeok. Iluntzetan frontoian biltzen ziren entrenatzeko.

Nola edo ahala euren lan eguketan tarterik bilatzen zuten. “Intentzio handia jartzen genuen”, dio garai hartan ezker muturrean jokatzen zuten Pepi Aierbek. Eta lasterka bizi aritzen omen zen. Bai bera eta talde osoa. Eurek sartutako goletako bat berea izan zen. Maitere Makazagak ere sartu omen zuen bestea. Joko araudia ikasi gabe bukatu omen zuten eskubaloian ibili ziren garai hura, baina ederki ahalegintzen ziren neurketetan. “Arbitroak partida bukatutzat eman ostean, jokatzen segitzen genuen. Beste taldeko atezaina noiz joango zain, guk golen bat sartzeko. Zer den gaztea izatea...”, dio barreari eutsi ezinik Makazagak.

txirriStra
7ABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

eskubaloiairen jokoa

IRRIBARREA GALDU GABE

Behin, partida jokatu gabeko garaipenik ere izan omen zuten. Erreteriarra agertu eta aurkaririk ez. Etxekoak non-bait taldea osatu ezinik geratu ziren. Usurbildarrak, garaipena lortuta, trenean kantari eta pozik bueltatu ziren etxera. Hemen jokatzen zutenean ere, jende mordoa erakartzen zuten. “Emakumeen taldea zenez, neskak galtza motzetan ikusteko morbo handia zegoen. Nobedadea zen”, oroitzen du Maiterek.

Ez dago esan beharrik. Garai hartako Usurbil, herri txiki bat, emakumeak kirolean... Hankak erakustea gehiegizkoa zela eta, emakume batzuk eskubaloian jokatu ezinik ere geratu omen ziren. Zeresana egon zen noski. “Atzetik zerbait esaten bazuten, ez dakigu” dio Pepik, halere aurrez aurre ezer ez zuten entzun jokalariek. Kontuan izan ze garaietaz hitz egiten ari garen. 60. hamarkada, eta emakumezkoak lehen aldiz, ordura arte ezezaguna zen kirol jarduera berri batean jokatzen.

MUTILAK, EUREN ALDE

Emakume bat baloiarekin eta galtza motzetan nobio bila ote zebiltzan, halako orduetan emakume bat kalean bakarrik nolatan ibili zitekeen... Hala-koak entzun omen ziren. Oso kritikatuak izan zirela dioten



Kritikak kritika, “abantaila bat izan genuen, mutil taldeen defentsa. Eskerrak eurei”

Maitere, Mertxe, Pepi eta beste taldekideak, 1963-1964ko denboraldian.

arren, “zer egiten genuen ba guk?” galdetzen du Pepik. Aierbek dioenez ordea, “abantaila bat izan genuen, mutil taldeen defentsa. Eskerrak eurei”. Eta eredugarria izan zen emakume talde honen jarrera; bai jokalekuan eta baita handik kanpo ere. Halako esanen aurrean, kasurik ere ez baitzuten egin. Kuraia eta ausardia handia erakutsi zutela duda izpirik ez da. Urtebete iraun zuen abenturak, jende faltagatik ezin izan zuten esku-

baloian jokatzen segi. Bestela, jarraitzeko prest ziren. Lehia baino, aisialdi eskaintza urria

zen garai hartan, eurentzat garrantzitsuena kirol jarduera berri hartan parte hartzea zen.

Oso pozik hartu dute liburua

Eta orain, 50 urteren ostean, Usurbil Kirol Elkartearen esker on eta omenaldia jaso dute, Usurbilen eskubaloian parte hartzen hasi ziren lehen emakumeok. Egunotan egindiren ekitaldiekin batera, J.J. Furundarenak idatzitako liburuan erretratatuak geratu dira, Maitere, Mertxe, Pepi eta Usur-

bilgo eskubaloiak bere historian izan zuen emakumezkoen lehen taldea. Oso pozik hartu dute argitalpena eta eurentaz oroitu izana. Egunotan, herrian egin diren ospakizunetan parte hartzen ikusi ditugu. Irribarre batekin, ingurukoekin oroitzapen ederrak partekatzen.

 **TAXI**
24 h
USURBIL
677 37 34 66 Joxe
943 36 21 78 Etxabe


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Interes handia piztu zuen Usurbil KE taldearen liburu aurkezpenak

Potxoenean deitua zegoen ekitaldia, baina azken unean Sutegira lekuz aldatzekotan egon ziren, hitzordura bertaratu zen jendetzagatik. Azkenean, nola edo ahala, bakoitzak bere lekua hartu zuen, batzuk eserita, besteak zutik, txiki geratu zen kultur etxeko goiko areto nagusian. Belaunaldi ezberdinetako jokalaririk, entrenatzaile, zuzendaritzako kide, udal ordezkari, guraso eta zaletu hurbildu ziren iragan astean, "Usurbil Kirol Elkartea 50 urte, 1963-2013" liburu aurkezpena.



Txiki geratu zen Sutegi erakusketaren inaugurazio egunean, eta txiki Potxoenea liburuaren aurkezpena.

Adi adi jarraitu zituzten guztiek, jada kalean den argitalpenari buruz, egileak, J.J. Furundarenak emandako azalpenak. Mende erdiko historiarik zati diren lagunak zeuden Potxoenean, eta haiekin guztiekin elkarlanean osatu du usurbildarrak, pasadizo, argazki, lekukotza, eta une pozgarri eta historikoz josia dagoen liburua. Une gozoetatik, atal oso bat idatzi du Furundarenak. Klubaren historia hasieratik jada, izandako garaipenak jasotzen ditu; 63-64 denboraldiko Kopako finala, 80. hamarkada hasierakoak, 94-95 urteetan neskak 1. nazionalera nola igo ziren, hurrengo urteetan oriotar eta usurbildarrez osaturiko mutilen taldeak izandako garaipen sorta...

KIROL ELKARTEAREN ALDE EGIN DUTENEI

Bost hamarkada hauetan Usurbil, Ohorezko Mailara heldu diren entrenatzaile bat eta 12 jokalariren harrobi ere izan da. "Bost urtetik behin jokalaririk handirik eman du Usurbil Kirol Elkartea, Furundarenak aurkezpen ekitaldian nabarmentzen zuenez.

Nortzuk diren, eta euren inguruko datu guztiak ere biltzen ditu, "Gurea da ohorea" izeneko liburu baten beste atal batek.

Txiste, bitxikeria, sailkapen, ospakizunetako eta taldeen argazki eta abarrek osatzen dute liburua. Gehiago aurreratu gabe, hoberena kalean den lana esku artean hartzea. Jotak argitalpen hau gaur kalean egotea posible egiten duen guztiak eskertu nahi izan zituen aurreko astean. Berak bakarrik ez, auzolanean egindako liburua dela nabarmendu zuen. Eta horregatik, Usurbil Kirol Elkartea 50 urteotako ibilbidea egitea ahalbidetu duen guztiei esker ona adierazteko lana izatea nahi du egileak. Omenaldi onena bere esanetan, liburuan bertan islatua dagoena baita. Nahiz, nabarmendu nahi izan zuenez, jende asko aipatu gabe geratu den. Tapia artistaren artelan batekin eta bertaratutako txalo artean eskertu nahi izan zioten Furundarenari, Usurbil Kirol Elkarteari izenean, aginagarri eginiko lana. Egileak bere aldetik, aurrera begirako erronkarik ere planteatu zion

Usurbil Kirol Elkarteari.

EGILEAREN HAUSNARKETAK

Batetik, liburua osatzeko egin den dokumentazio bilketa abiapuntu gisa hartuta, sailkapen, lorpen eta bestelako informazioa biltzen jarraitzea aurrerantzean. Kirol alorrari dagokionez, "ia lortzen dugun behingoz, gizonezkoen taldeak bezain iraunkorrak izatea emakumezkoen taldeak". Eta hizkuntzaren ikuspegitik, "kontzientzia hartu behar da, euskara normalizatzeko bidean, badagoela egiteko lana". Pausoka, talde izenak, esku-baloian erabiltzen den hiztegia euskalduntzen joateko gonbita luzatu zion Furundarenak klubari.

Eta herriari begira, bestelako ideia interesgarri bat ere proposatu zuen; ikerkuntza lan bat. Usurbil Kirol Elkartea bezalako bilguneek udalerri batean, herrigintzan, zer funtzio bete behar duten aztertuko lukeena; ia harrobi lana egin behar duen, denek jokatze edo goi mailan lehiatzeko elkartea izan behar duen, lehia eta heziketa nola uztartu

halako bilgune batean... Hor-txe liburu egilearen proposamenak.

Eskuratu liburua, eta parte hartu lehiaketan

Liburua 15 eurotan salgai dago NOAUA'n. Kirol elkarteari ibilbidea islatzen duen lan hau esku artean izango duzuenok, adi. Argitalpenak akats bat du. Zein ote? Egileak berak akatsa zein den argitzeko lehiaketa berezi bat proposatu du. Ikerketa lana, irakurlearen esku uzten du. Zaila ezta? Horregatik hain zuzen, pista bat eman zuen Furundarenak. "Kirol lorpenen inguruko akatsa da". Hor-txe pista, eta orain zuen lana akatsa identifikatzea. Errorea non dagoen jabetzen zaretenean, email bat bidali helbide honetara: usurbilke@gmail.com. Eta asmatzen duzuenok artean sari bat zozketatuko da.



Datorren urtean, gehiago

Bustita hasi zituzten jaiak; globo gerran. Dantzan jarri dituzte auzotarrak eta bertaratu zirenak. Denentzako, sabela poztu, abestu edota dantzarako, gauez nahiz egunez parranda egiteko aukera izan da asteburuan Santuenean. Jai Batzordeak eginiko lanari esker gauzatu dira beste behin, auzoko festak. Festetako asteburua igarota, balorazioen eta hurrengo urtean zer egin pentsatzeko ordua orain.

Jaietako zenbait irudi, www.noaua.com atariko "Argazkitegia" atalean aurkituko dituzue.



Santueneko jaietan atera ditugun hainbat argazki ikusgai dituzue web orrian.



Globo gerra, puzgarriak, mus txapelketa... Adin guztietarako ekitaldiak izan dira Santueneko festetan.

Tratuan, Txokoalden

Liburuak, arropa, musika lanak, animaliak, jostailuak... Beste behin, herritarrek jarritako postuak bigarren eskuko denetari-ko produktuak erakusgai jarri zituzten iragan igandean, Truke Plazan. Salgai ez, salerosketek ez baitute lekuri ekimen honetan. Trukeak, eta bi lagunen arteko dirurik gabeko tratuak baizik. Bertan bildutakoak, paella erraldoi bat dastatzekoak ziren zuhaizpean. Trukeko erreferentzia gunean bihurtu da jada Txokoalde.



Erreferentzia bilakatu da Txokoaldeko Truke Eguna.



2013 San praixku

gehigarri berezia



Iparraldeko bisitariak, San Praixkuetan

AGINAGARRAK ERRETRATATZERA ETORRIKO DIRA ETA HIRU EGUNEKO EGONALDIA EGINGO DUTE

Bisitari talde berezia izango dute Aginagako San Praixkuek, jaietako lehen aste-buruan. Jai Batzordeak gonbidatuta, Iparraldeko laukote bat dator urriaren 3tik 5era Aginagako paisaiak, nortasuna, ohi-turak, jaiak, eta protagonistak, aginagarrek erretratatzera. Eurak lantzen ari diren proiektu baten baitan datoz, eta jaietan erabat murgilduko dira. Aginagarrekin elkarbizitzen egongo dira hiru egunez; bertan jan, lo eta biziko dira datorren asteko ostegunetik igandera.



*Belaunaldi
desberdinetako
aginagarrek
oilasko biltzera
animatu dituzte
antolatzaileek*

Urriaren 5ean, goizean goiz aterako dira oliasko biltzera.

“Euskal Herriak, edo hobeki erran euskal herriek eta herrialdeek badute berez izen eta izana. Bakoitzari zerk ematen dio nortasun berezia? Errekako urak, duda gabe, baina gehiago bizizaleek, jende hauen ele-ek, mintzajeak, euskalkiak... Urriaren 3tik herrian (Aginagan) ibiliko dira lau lagunak, aginagarren euskara behatzen, jendearekin kalakan, argazkiak hartzen: Gamarteko akordeonista, Gotaintar soinu-laria, Montoriko soinu hartzailea eta Barkoxtar argazkilaria”, iragarri dute. Baina laukote hau izen abizenekin nortzuk osatzen dute? Jean-Christian Galtxetaburu, Mixel Etxekopar,

Pierre Vissler eta Joanes Etxebarria dira Aginagak datozen San Praixkuetan izango dituen bisitari bereziak.

EMANALDIA URRIAREN 5EAN

San Praixkuetako lehen egunetako ekitaldietan parte hartuko dute. Urriaren 3an helduko dira Aginagara. Errioan bueltatxo bat egin asmo dute, Aginaga kaxko paretik Saria pareraino. Biharamunean, San Praixku eguneko ekitaldietan egongo dira; ospakizunetako irudiak grabatzen, argazkiak ateratzen, edota aginagarren lekukotzak biltzen. Urriaren 4ra-ko hain zuzen, bestelako hi-

tzorduen artean, aginagarren argazki erraldoi bat atera asmo dute.

OILASKO BILTZAILEEKIN

Oilasko biltzaileak irtengo diren egunean ere, urriaren 5ean, bertan izango dira Iparraldekoak. Horregatik, Jai Batzordetik, adin, belaunaldi desberdinetako aginagarrek oilasko biltzera animatzen dituzte. Edo arratsalde berean ospatuko diren estropadetara. Handik bueltan, 20:00etan ludotekan, lantzen ari diren proiektuko aurrerapentxo bat eskainiko dute lau lagunok. “Emanaldian beren kantuak musikak eskainiko dituzte, bai eta

Arnegin bildutako jendeen ahotsak, soinuak, argazkiak ere bai”, iragarri dute antolatzaileek. Hain zuzen, Aginagara heldu aurretik, Arnegin eta Pagolan, Ipar Euskal Herriko bi txoko hauetan egon dira grabaketa saioak egiten. Aginaga izango dute euren hiru garren jomuga. Gerora, leku guztietan eginiko lanaren emaitza sarean zintzilikatzeko asmoa dute.

Iparraldeko lagunon Aginagako egonaldia, urriaren 5ean ludotekan eskainiko duten emanaldi ostean, frontoian ospatuko den herri afarian borbilduko dute. Aginagarren artean.

Eliza zahar berriaren inaugurazioa

Heldu da, azken hilabeteotan aginagarrek auzolan-eran eraberritu duten eliza zaharra barrutik nola geratu den ikustekoa. Ospatuz inauguratuko dute larunbat honetan, irailaren 28an. Aginagarrek hilabete haue-

tan eginiko auzolanaren emaitza ikusteko aukera izango da, eraikinean bertan, 11:30etatik aurrera. Inaugurazio festa herri bazkari baten bueltan amaituko dute. Otor-durako txartelak aurrez erosi behar dira. Salgai daude Aitzagan eta

Aginagan, bi lekutan; Arrate Zahar Egoitzan eta Sekañan. Honatx irailaren 28ko inaugurazioko egitaraua: 11:30 Irekiera.

12:00 Egingako lanaren erakusketak.

14:00 Bazkari herrikoia.



Larunbat honetan izango da.

Arraunean, gizonezkoak bakarrik

Zazpigarren ediziora heldu da trainerila txapelketa. Izen handiko traineruak gerturatuko dira Oriara, Aginaga parera; Jai Batzordeak iragarri dutenez, Kaiku, Hondarribia, Orio A, Zarautz, Castro, Ondarru eta Orio B. Eta haiekin guztiekin, etxekoak ere lehian noski; aginagarra dena ematera irtengo dira beste behin. Bandera etxean geratuko den edota Aginagatik nork eramango duen ikusteke dago oraindik. Urriaren 5ean, 16:00etatik aurrera erabakiko da, erriogan. Estropadak amaituta, Zumartxan taldekoeen kalejirak errioko festa eta Aginagako Kaxkoan iluntzetik aurrera ospatuko diren ekitaldiak lotuko ditu.



Aginagakoak bandera bila irtengo dira.

Zuhaitz Gurrutxaga, bakarriketan

Futbol kontuak alboratu eta komunikazio munduan murgildua dagoen Zuhaitz Gurrutxaga fitxatu du Aginagako Jai Batzordeak, jaietako lehen gauerako. Bakarriketan arituko da, urriaren 3an, gaueko 22:00etatik aurrera Aginagako ludotekan. "Futbolisto baten konfidentziak". Izenburu horixe du. Kirolari bezala Gurrutxagak jorratu duen ibilbidean izandako esperientziak azalduko ditu umoretik; futbol zelai barruan eta handik kanpo bizitakoak. Golak, kanporaketak, entrenatzaileak, lagunak, bidaiak, garaipenak, porrotak, maitasun istorioak... Egia osoa kontatzera dator Aginagako ludotekara, astebete barru.



Urriaren 3an izango da Aginagan.

Aginagarren erretratua, San Praixku Egunez

Eskuzabal dator Aginagako egun handia. Hamaiketako jubilatuentzat Aginaga sagardotegikoan, sardina eta sagardo dastatzea arratsaldean... Berria den hitzordu bat ere ipini dute San Praixku Egunez: herri argazki handi bat ateratzeko gonbita luzatu die aginagarrei Jai Batzordeak. Beraz, "ez geratu inor etxean" eskatu dute antolatzaileek. San Praixku Eguna ostiralez egokitu izanak, iazko egitarauarekin alderatuta, Haurren Eguneako ospakizunak astebete atzeratzera ekarri du. Urriaren 11n etxeko txikienek goizetik iluntzera, jolas, puzgarri, txokolate jan eta buhanderiekin nekatu arteraino jolastu ahal izango dute.



Egun handian, Aginagako sagardotegian elkartu ohi dira jubilatuenak.

Herriko taldeak, dj-ak, bertsoak, erromeria...

Odolaren Mintzoa eta Hotzikara arituko dira San Praixku Egunean. Erromeria giroa Ingo al deu taldearekin urriaren 5ean eta Itzartukoekin hilaren 11n. Aurretik, bertso-afaria, Manex Mujika, Haritz Casabal eta Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" hirukotearekin Eliza zahar berrituan. Otordurako txartelak aurrez eskuratu behar dira. Eta amaitzeko, San Praixkuetako parranda gau nagusia. Urriaren 12an, azken urteotan tandem egin duten bi dj; Abiba gauerdian hasita frontoian. Eta Larra usurbildarrak hartuko du lekukoa gero, goizaldera arte, Eliza zaharrean. San Praixkuak dantza batean ospatzeko eskaintza zabala aurten ere.



Odolaren Mintzoa.



Ondo pasa
San Praixkuak!!

Mutiozabal Etxea, 17 zenb.
20170 AGINAGA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 361 081
Faxa: 943 365 704
www.atxega.com
atxega@atxega.com

José María Larburu
Garraiatzailea

garraioak
larburu
gruarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA

 943 36 17 35 • 656 791 277

TXAPARTEGI

harategia



bertako haragia

ondo pasa jaietan!

AGINAGA • 943 361 907

ETXEBESTE
Jatetxea

Eguneko
bazkariak

ondo ibili jaietan !!

 943 36 27 40

Bi asteburu, hamaika ekitaldi

Urriak 3, osteguna

18:00 Txupinazoa buruhandi eta trikitilariekin.

18:30 Ezinduen pala partida.

19:00 III. Emakumezkoen Pala Txapelketako finala eta XI. Gizonezkoen Pala Txapelketako finala.
22:00 Zuhaitz Gurrutxagaren bakarriketa saioa ludotekan.

Urriak 4, ostirala

SAN PRAIXKU EGUNA

11:00 Meza Nagusia bertsolariekin.

Ondoren, jubilatuen hamaiketako bikaina, Aginaga sagardotegiaren eskutik.

17:30 Herritarren arteko herri kirolak, Manuel Mariren kontakizun eta txisteeekin.

